# I ARABAKO FORU ALDUNDIA
# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**3.984**

**42/2004 FORU DEKRETUA, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, albaitari pribatuei albaitari gaituaren kalifikazioa emateko prozedura arautzen da.**

Eusko Jaurlaritzak, 2004ko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Elkartean txakurrak edukitzeko arauak ezarri zituen, eta arlo horri buruzko arautegiak bildu zituen dokumentu bakar batean, arauak ahalik eta argitasun eta ziurtasun gehienez eman ahal izateko.

Dekretu horretako 2. artikuluak xedatutakoaren arabera, txakurrak identifikatzeko eta erroldan sartzeko beharra dute txakurren jabeek; horrez gain, artikulu horretan zehazten da txakurrak, besteak beste, horretarako berariaz gaitu den albaitari pribatuak identifikatuko dituela. Bestalde, artikulu beraren 3. paragrafoak xedatzen du dagokion foru aldundiak gaituko dituela albaitariak.

Diputatu nagusiak, uztailaren 9ko 127/2003 Dekretuaren bidez (Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dira dekretu horretan), Nekazaritza Sailaren funtzioetan, besteak beste, abeltzaintzari dagozkionak sartzea ezartzen du. Beraz, horren arabera, sail horri dagokio albaitari gaituaren kalifikazioa lortzeko prozedura ezartzea Arabako Lurralde Historikoan, txakurrak identifikatzeko prozesuan parte hartu nahi duten albaitari pribatuei emango zaiena.

Horregatik guztiagatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, ondokoa

XEDATU DUT:

Txakurrak identifikatzeko albaitari gaituaren kalifikazioa lortzeko prozedura ezartzea, artikulu hauen arabera:

1. artikulua.- Kalifikazioa eska dezaketenak:

Txakurrak identifikatzeko albaitari gaituaren kalifikazioa eskatu ahal izango dute honako betebehar hauek betetzen dituzten albaitari pribatuek:

- Albaitaritzako lizentziadun titulua izatea.
- Albaitarien Elkargo Ofizialen bateko kide izatea.
- Gizarte Segurantzarekiko zerga-obligazioak eta Albaitarien Elkargo Ofizialarekiko kuotak ordainduta izatea.
- Identifikaziorako ekipamendu homologatu egokia izatea, gutxienez honakoak izango dituena:

  Ordenagailu pertsonala.
  Inprimagailua.
  Interneterako sarbidea.

2. artikulua.- Eskabideak aurkeztea:

Gaitua izateko eskabideak, horretarako egin den inprimaki-orria erabilita (foru dekretu honetako I. Eranskinean datorrena), behar bezala beteta aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko Abeltzaintza Zerbitzuan, txakurrak identifikatzeko lana hasi aurretik. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Albaitaritzako lizentziadun tituluaren kopia egiaztatua.
- Albaitarien Elkargo Ofizialen bateko kide izatea egiaztatzen duen agiria.
- Zerga-obligazioak ordainduta izatearen egiaztagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta izatearen egiaztagiria.
- Albaitarien Elkargo Ofizialeko kide denez gero, bertako kuotak ordainduta izatearen egiaztagiria.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**3.984**

**DECRETO FORAL 42/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que regula el procedimiento para otorgar a los veterinarios privados la calificación de veterinario habilitado.**

Por Decreto del Gobierno Vasco 101 /2004 de 1 de junio de 2004 se establecen las normas sobre la tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco, refundiendo en un solo cuerpo legal y al objeto de dotar de la mayor claridad y certidumbre posible, las diferentes normativas confluyentes en la materia.

El artículo 2 del citado Decreto, que establece la obligación de los poseedores de perros de identificar y censar los mismos, señala que la identificación de estos animales se efectuará entre otros, por veterinario privado habilitado a estos efectos, disponiendo el apartado 3 del mismo artículo, que la citada habilitación será otorgada por la Diputación Foral correspondiente.

El Decreto del Diputado General 127/2003 de 9 de julio, por el que se determinan los distintos Departamentos de la Diputación Foral de Álava, establece dentro de las funciones del Departamento de Agricultura, entre otras las relativas a Ganadería, correspondiendo en consecuencia al citado Departamento, el establecimiento en el Territorio Histórico de Álava, del procedimiento para otorgar la calificación de veterinario habilitado, a los veterinarios privados que deseen participar en el proceso de identificación canina.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral del Departamento de Agricultura y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

DISPONGO:

Establecer el procedimiento para obtener la calificación de veterinario habilitado para identificación de perros, con arreglo al siguiente articulado:

Artículo 1.- Destinatarios:

Podrán solicitar la calificación de veterinario habilitado para identificación de perros, los veterinarios privados que cumplan los siguientes requisitos:

- Estar en posesión del título de licenciado en Veterinaria.
- Estar colegiado en un Colegio Oficial de Veterinarios.
- Estar al corriente en el pago de sus obligaciones tributarás, para con la Seguridad Social y Cuotas del Colegio Oficial de Veterinarios.
- Disponer del equipo homologado adecuado para la identificación, que como mínimo constará de:

  Un ordenador personal.
  Una impresora.
  Acceso a Internet.

Artículo 2.- Presentación de solicitudes:

Las solicitudes de habilitación se presentarán debidamente cumplimentadas en impreso normalizado, que figura como anexo I al presente Decreto Foral, en el Servicio de Ganadería del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava, previamente al comienzo de la actividad de identificación de perros y deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

- Copia compulsada de título académico de Licenciado en Veterinaria.
- Certificado que acredite estar colegiado en algún Colegio Oficial de Veterinarios.
- Certificado de estar al corriente en el pago de sus obligaciones tributarias.
- Certificado de estar al corriente en el pago de la Seguridad Social.
- Certificado de estar al corriente en el pago de las cuotas al Colegio Oficial de Veterinarios en el que esté colegiado.

- Identifikazioa gauzatu ahal izateko daukan ekipamenduaren zerrenda, bai eta horren homologazioa ere.

- Gaitu izatearen ondorioz gauzatuko dituen jardueretarako bulegoa non egongo den.

3. artikulua.- Gaikuntza:

3.1.- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, zuzendariaren ebazpen baten bidez, txakurrak identifikatzeko albaitari gaituaren kalifikazioa emango du, aldez aurretik lehenengo artikuluan eskatutako betebeharrak bete direla egiaztatuta.

Eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera hiru hilabete izango dira aipatutako ebazpena emateko.

Hiru hilabete horiek igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, gaikuntza eman egin dela esan nahiko du.

3.2.- Titularrak betebeharrak betetzen dituen bitartean eta gaikuntzari uko egiten ez badio, indarrean egongo da emandako gaikuntza.

3.3.- Arabako Foru Aldundiak emandako gaikuntzak balioa izango du Arabako Lurralde Historikoan aritzeko, eta albaitari gaituak honako lan hauek egin ahal izango ditu:

- Txakurrak elektronikoki identifikatu ahal izango ditu.

- Alta eta baja agiriak eman ahal izango ditu, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Animalien Identifikazio Elektronikorako Erregistro Orokorrean dauden datuak aldatu izanaren agiriak ere, betiere txakurrei buruzkoak badira.

- Txakurren Txartel Ofiziala eta identifikazio agiria bete ahal izango ditu, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Animalien Identifikaziorako Erregistro Orokorrean (REGIA aurrerantzean) sartzeko eskabidea ere.

- REGIAn dauden datuak eskuratu eta aldatu ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoak xedatutakoarekin bat etorriz.

- Txakur oldarkorrak, arriskutsuak izan daitezkeenak edo jabetzari dagozkion baldintza bereziak dituzten txakurrak behatu eta horien jarraipena egin ahal izango du.

- Beste egiaztagiri edo txosten mota batzuk eman ahal izango ditu, txakurren osasun arloari dagozkionak.

- Eusko Jaurlaritzaren 101/2004 Dekretuak albaitari gaituentzako xedatzen dituen funtzio guztiak bete ahal izango ditu.

3.4.- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak gaikuntza ken dezake, baldin eta albaitariak betetzen ez baditu gaikuntza eman zeneko baldintzak. Gaikuntza kentzeko, administrazio espedientea abiaraziko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan xedatutakoak aplikarazteko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Bigarrena.- Diputatuen kontseiluak onartzen duen egunetik bertatik aurrera izango du indarra foru dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko ekainaren 15a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Nekazaritza Saileko foru diputatua, ELOY LÓPEZ DE FORONDA ORTÍZ DE URBINA.

- Relación del equipo de que dispone para realizar la actividad de identificación así como de su homologación.

- Ubicación del despacho donde ejercerá las tareas que se derivan de la habilitación.

Artículo 3.- Habilitación:

3.1.- El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava mediante Resolución de la Directora de Agricultura, otorgará la calificación de veterinario habilitado para identificación de animales de la especie canina, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos exigidos en el artículo primero.

El plazo para adoptar la citada resolución será de tres meses contados desde el siguiente a la presentación de la solicitud.

Transcurrido el plazo establecido en el párrafo anterior sin que haya recaído resolución expresa, se entenderá otorgada la habilitación.

3.2.- La habilitación otorgada tendrá validez indefinida, mientras el titular reúna los requisitos que dieron lugar a su expedición y no renuncie a la misma.

3.3.- La habilitación concedida por la Diputación Foral de Álava será válida para operar en el Territorio Histórico de Álavay faculta al veterinario habilitado para realizar las siguientes tareas:

- Identificación electrónica de los animales de la especie canina.

- Emisión de documentos de altas, bajas y modificaciones de datos relativos al Registro General de Identificación Electrónica de Animales del País Vasco, referidos a la especie canina.

- Cumplimentación de la Cartilla Oficial Canina y del documento de Identificación y solicitud de Inscripción en el Registro General de Identificación de Animales de la Comunidad Autónoma, en adelante R.E.G.I.A.

- Acceso y modificación de datos del R.E.G.I.A., con sujeción a lo dispuesto en la Ley orgánica 15/99 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de carácter personal.

- Observación y seguimiento de perros agresivos, potencialmente peligrosos o sometidos a condiciones especiales de tenencia, así como la emisión de los correspondientes informes y certificados.

- Emisión de otro tipo de certificaciones e informes relativos a aspectos sanitarios de los animales de la especie canina.

- Cuantas funciones se establecen en el Decreto de Gobierno Vasco 101/2004 de 1 de junio, para veterinarios habilitados.

3.4.- El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava está facultado para retirar la habilitación, cuando el veterinario deje de reunir los requisitos que dieron lugar a su otorgamiento. La retirada de la habilitación se realizará mediante la incoación de un expediente administrativo.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Se faculta al Diputado Foral de Agricultura, para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

Segunda.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su aprobación por el Consejo de Diputados.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de junio de 2004.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral de Agricultura, ELOY LÓPEZ DE FORONDA ORTÍZ DE URBINA.

**3.985**

**43/2004 FORU DEKRETUA, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, “Tallades” izeneko bidaia egiteko kuota onartzen da, Gazteriaren Foru Erakundeak 2004ko udarako sustatu duen jarduera kanpainaren barruan. Kanpaina horretarako kuotak eta hobariak Diputatu Kontseiluak onartu zituen apirilaren 27ko 35/2004 Foru Dekretuaren bidez.**

Diputatuen Kontseiluak, apirilaren 27ko 35/2004 Foru Dekretuaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak 2004ko udarako sustatu dituen jardueren kanpainarako kuotak eta berorien gaineko hobariak onartu zituen.

Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Batzarrak, 2004ko ekainaren 7an, “Tallades” izeneko gazteentzako bidaia egin ahal izateko kuota onartzea proposatzen du. Bidaia hori foru erakundeak

**3.985**

**DECRETO FORAL 43/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba la cuota para el viaje denominado “Tallades” dentro de la Campaña de las actividades promovidas por el Instituto Foral de la Juventud-Gazteriaren Foru Erakundea durante el verano 2004, cuyas cuotas y bonificaciones se aprobaron por Decreto Foral del Consejo de Diputados 35/2004, de 27 de abril.**

Mediante Decreto Foral 35/2004 del Consejo de Diputados de 27 de abril, se aprobaron las cuotas y bonificaciones sobre las mismas para la Campaña de las actividades promovidas por el Instituto Foral de la Juventud-Gaztediaren Foru Erakundea, durante el verano 2004.

El Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud-Gaztediaren Foru Erakundea, con fecha 7 de junio de 2004, propone la aprobación de la cuota para la realización del Viaje Juvenil de-